XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1255

32/2012 DEKRETUA, martxoaren 6koa, zeinen bidez gaitzen baitira 7111 Programan (Nekazaritza eta Landa eta Itsas Garapena) 21.248.637,28 euroko kredituak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012. urterako aurrekontuko 9311 Programan (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari 21.248.637,24 euro ordaintzeko konpromiso irmoa hartu da, Nekazaritzaren Europako Berme Funtsa NBEFk finantzatutako eta Nekazaritza Aldeen Garapenerako Nekazaritzaren Europako Funtsa LGNEFk kofinantzatutako zuzeneko laguntzak direla-eta.

Horiek horrela, gaitu egingo dira kreditu horiek, 1/2011 Legegintzako Dekretuaren 82. eta 83. artikuluak betez (1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena).

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko martxoaren 6an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
7111	421.00	4.900.000,00
7111	452.00	14.175.993,72
7111	752.00	2.172.643,56
	Guztira	21.248.637,28

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.07	4.900.000,00
9311	441.08	14.175.993,72
9311	741.07	2.172.643,56
	Guztira	21.248.637,28

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak gauzatuko dituen jarduerak finantzatzeko izango dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko martxoaren 6an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.